


Botikak ordaintzeko laguntza **berriak**



Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

www.botiketarakolaguntzak.nafarroa.eu



Nolakoak dira laguntza berri hauek?

Nafarroako Gobernuak sustatu ditu laguntza hauek, botikak erosteko. Helburua da botiken prezioa oztopoa ez izatea baliabide gutxiago duten pertsonentzat. Lehenbiziko aldiz, pentsiodunetz gain, jarduneko pertsonak ere lortu ahalko dituzte laguntza hauek.



Zer botika finantzatzen dira?

Laguntzak aplikatzen zaizkie jada finantzaketa publikoari lotuta dauden botikei; besteei ez.



Nork baliatu ditzake?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun-txartela duten pertsonak, honako baldintza hauek betetzen dituztenek:

- Jarduneko pertsonak eta pentsiodunak, urtean 18.000 eurotik beherako errentak dituztenak*. Hemendik aurrera, gehienez ere 8,23 euro ordainduko dituzte hilabeteen botika finantzatueta.
- Jarduneko pertsonak eta pentsiodunak, urtean 6.000 eurotik beherako errentak dituztenak*. Hemendik aurrera, gehienez ere 2,6 euro ordainduko dituzte hilabeteen botika finantzatueta.

* Aurreko urteko errenta aitortpenaren arabera.



Eskaera non aurkez daiteke?

- Web orri honen bidez: www.botiketarakolaguntzak.nafarroa.eu
- Ohiko osasun etxe edo kontsultategian, administrazio-langileak badaude han.
- Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuan (Bakearen plaza, z.g., 4. solairua, 31002 - Iruña).



Nork izapidetu ditzake laguntza hauek?

Txartelaren titularrak egin behar du izapidea, botikak bai bere izenean bai bere onuradunen izenean ordaintzeko.



Noiztik aurrera eska daitezke laguntza hauek?

Lehen eskaera urriaren 1etik 31ra egin ahalko da, uztailari, abuztuari eta irailari dagozkien farmazia gastuak ordaintzeko.

Jarraian, urtean eskaera bat egin beharko da bakarrik, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 15etik aitzina, eta 9 hilabeteko epea izanen da izapidetzeko.

Eskaera 2017ko urrian egiten dutenek ez dute berriz ere egin beharko 2018ko abendura arte.



Zer dokumentazio behar da laguntza hauek izapidetzeko?

- Nortasuna frogatzeko dokumentazioa (osasun txartela edo NANA).
- Banku-kontuaren zenbakia, dirua han jasotzeko.



Aurkeztu behar dira botiken erosketaren tiketak?

Ez da erosketaren tiketik aurkeztu behar, baldin eta laguntzak eskatu badira Nafarroan daude farmazietan **errezeta elektronikoaren** bidez erositako botikak ordaintzeko. Tiketa aurkeztu behar da Foru Komunitatetik kanpo erositako botikak ordaintzeko.

Paperean emandako errezetak direnean, beharrezkoa da agindua eta erosketaren tiketa aurkeztea.



Nola ordainduko dira laguntzak?

Hiru hilean behin ordainduko dira eskatzaileak adierazitako kontu korrontean.

Edozein zalantza izanez gero, zure osasun etxe edo farmazia ohikoan galdetu dezakezu,

848 429 687 eta 848 429 092 telefonoetara deitu edo helbide honetara idatzi: atencionfarmacia@navarra.es